



# VENEGAS PROKOFIEV

22

Martxoa / Marzo

19:30

Pamplona / Iruña

BALUARTE

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular:  
**Robert Treviño**

## **KONTZERTINOA CONCERTINO**

Alberto Menchen

## **I BIOLINAK / VIOLINES I**

Beatrice Gajju (1) (5)  
Xabier de Felipe (4)  
José Ignacio Aizpiri  
Inmaculada Aramburo  
Laura Balboa  
Irene Echeveste  
Marie Gaillard  
Alexandre Kozouline  
Oscar López  
Maite Menéndez  
Larraitz Oartzabal  
Ortzi Oihartzabal  
Itziar Prieto  
Maialen Rezabal  
Cristina Vértiz

## **II BIOLINAK / VIOLINES II**

Raquel Cortinas (2)  
Xabier Gil (2)  
Mikel Ibañez (4)  
Marie Héloïse Arbus (5)  
Amaia Asurmendi  
Nathalie Dabadie  
Virgile Demillac  
Ludwik Hamela  
Anne-Marie Harmat  
Antoni Kosc  
Ricardo Ruiz  
Igor Torre

## **BIOLAK / VIOLAS**

Delphine Dupuy (2)  
Pawel Krymer (2)  
Monika Mazur (4)  
Maite Abasolo  
Esther Alba  
Pascal Arnaud  
Natacha Dupuy-Scordamaglia  
Justyna Janiak-Krymer  
Arkaitz Martínez  
Sergio Montero  
Yann Seyrac

## **BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS**

Juan Ignacio Emme (2)  
Gabriel Mesado (2)  
Flore Lefevre (4)  
Natalia Díaz  
Jacek Grabe-Zaremba  
Jon Larraz  
Beatriz Linares  
Pascale Michaud  
Ian Swedlund

## **KONTRABAXUAK CONTRABAJOS**

Arkadiusz Maciejski (2)  
Paloma Torrado (2)  
Marc Sirera (4)  
Victor Bogdanov  
Mehmet Sönmez  
Pierre Torrent

## **FLAUTAK / FLAUTAS**

Hélène Billard-Aliról (2)  
Bruno Claverie (2)  
Ander Erburu  
Oihana Kontxeso

## **OBOEAK / OBOES**

Óscar Diago (2)  
Javier Lecumberri (2)  
Pascal Laffont  
Hervé Michaud

## **KLARINETEAK CLARINETES**

Luis Cámara (2)  
Juan Navarro (2)  
Stéphane Langlois  
Sara Zufaurre

## **FAGOTAK / FAGOTES**

Marco Caratto (2)  
François Proud (2)  
Yuan Dai  
Anne Charlotte Lacroix

## **TRONPAK / TROMPAS**

Marcos Cruz Pardeiro (2)  
Adrián García Carballo (2)  
Cristian Palau (2)  
Ignacio Sánchez (3) (5)  
Jean-Luc Casteret  
Xabier Sarasa  
Salvador Tudela

## **TRONPETAK / TROMPETAS**

Didier Bousquet (2)  
Bernabé García (2)  
Jesús Castillo  
Miguel Echepeare

## **TRONBOIAK / TROMBONES**

Arnaud Mandoche (2)  
Christophe Sánchez (2)  
Frédéric Boulan (5)  
Daniel Ruibal

## **TUBA**

Oscar Abella (2)

## **TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN**

Igor Arostegi (2)  
Anthony Lafargue (2)  
Héctor Marqués (2)  
Irene Rodríguez (3) (5)  
Xabier Peña

## **HARPA / ARPA**

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal



**PABLO GONZÁLEZ**  
Zuzendaria ^ Director



**DONOSTIAIKO ORFEOIA**  
Abesbatza ^ Coro  
Zuz. gonbidatua / Dtor. invitado:  
**ALFONSO HUARTE**



**ALISA KOLOSOVA**  
Mezzosopranoa  
Mezzosoprano

VENEGAS  
PROKOFIEV

## EGITARRAUA ^ PROGRAMA

I

### **SASKIA VENEGAS** (1983)

**At the Aegean shores** (versión revisada y extendida) [8']

Argitaletxea / Edita: Donemus

### **BENJAMIN BRITTEN** (1913-1976)

**Peter Grimes, Op.33a. Four Sea Interludes** [16']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Dawn: Lento e tranquillo
- II. Sunday Morning: Allegro spiritoso
- III. Moonlight: Andante comodo e rubato
- IV. Storm: Presto con fuoco

II

### **SERGEI PROKOFIEV** (1891-1953)

**Alexander Nevsky, Op.78** [36']

Argitaletxea / Edita: Internationale Musikverlage Hans Sikorski

- I. Russia under the Mongolian Yoke
- II. Song about Alexander Nevsky
- III. The Crusaders in Pskov
- IV. Arise, Ye Russian People
- V. The Battle on the Ice
- VI. The Field of the Dead
- VII. Alexander's Entry into Pskov

**P**ablo Gonzalezek, RTVEko Orkestra Sinfonikoko titularrak eta nazioarteko proiektziorik handiena duten Espainiako zuzendarietako batek, Euskadiko Orkestra zuzenduko du gaur, Denboraldi honetako programarik zailenetako batean. Gizakiaren, giza ideien eta giza bizipenen gainekoa izango da programa, eta mundua ulertzeko orduan artea gizakiaren aliatu nola bilakatzen den ere landuko du. Hiru obra entzungo ditugu, eta horietan pobrezia, gerren eta norbanakoen arteko areriotasunaren gaineko dramak izango dira ildo nagusia.

Iraganeko obra handiek bidaltzen dizkiguten mezuak indarrean daude oraindik ere, baina ez dago musika garaikidea baino hoberik orainaldiko arazoez hitz egiteko. 2016ko uda Lesboseko errefuxiatuen esparruan boluntario gisa lanean pasatu ondoren idatzi zuen **Saskia Venegasek** *At the Aegean Shores* (Egeo itsasoaren ertzean) izeneko poema sinfonikoa. Han ikusitako krisi humanitarioak eragindako zirrurarekin eman zion forma obra programatiko honi. Hasieran, gomazko txalupa bat irudikatzen du, modu arrisksuan gainkargatua, Turkia eta Lesbos bereizten dituen ur-korrante zurrunbilotsuan barrena. «Esperantzaren lurraldeko» hondartzetara zakarki iritsi ondoren, aurreko soinu-asaldura kontenplaziozko paisaia etereo bat bilakatzen da, greziar musikaren formek eta koloreek inspiratuta, eta otoitz ortodoxoen patroirritimikoez eta pedal-notez lagunduta. Elizetako hormen kanpoaldean jarritako bozgorailu handien bidez, iritsi berriei otoitz horiek inposatzen zaizkiela gogoratzen digu Venegasek.

Autoreak azaldu duenez, paisaia adierazkor horrek beste «gai berri bati uzten dio lekua, baina ez da guztiz loratzen, pixkanaka korrante berri batek (hariek hasten dutena) irensten baitu; Europako sistema burokratikoak irudikatzen du horrek. Euren bizimodu propioaren gainean erabakitzeke autonomia kentzen die iritsi berriei sistema horrek. Sistemak haien eguneroko errutinak izozten ditu, eta onarpena jasotzeko itxarondaldi amaigabearen murgiltzen dira. Hala, haien bizitza sufrikario bilakatzen da. Begietan gordetzen duten azken distira zurruputzen die sistemak. Denbora pasata, istorio horiek bigarren plano batean geratzen dira, baina txalupeke lehorreratzen jarraitzen dute egunero, eta jendeak pilatuta jarraitzen du sekulako zelai gizagabeetan».

*At the Aegean Shores* salaketa-obra gordina da, baina uzten die lekua gizakiarenganako esperantzari eta fedeari ere. «Gizarte gisa, lazturatik ihes egiten duten horiek guztiak gure artean txertatzeko eta hartzeko gai izango garela espero dut, etorkizunean 'Nahiago nuke egin izan bagenu...' esan beharrik ez izateko», esan du Venegasek.

**Benjamin Brittenek** *Peter Grimes* (1945) obrarekin lortu zuen nazioarteko fama. XX. mendeko antzerki musikaleko maisulanetako bat da. Duen eraginkortasun dramatiko eta musikala handia alde batera utzita, protagonistaren tratamendu psikologikoarengatik hunkitu zuen agertoki lirikoa *Peter Grimes* lanak. Grimes da protagonista, arrantza ingeles biolentia eta gizartearen moldatzen ez zena, landa-ingurune ultrakontserbadore batean. Operaren historian inoiz ikusi gabeko pertsonaia mota bat zen. Gainera, Brittenek ez zuen pertsona gaizto gisa irudikatu eta, ondorioz, giza konplexutasun berdingabea eman zion. Brittenek dozena bat lan egin zituen haren ustez funtsezkoa zen gai bati buruz, hainbat ikuspegitatik: giza arimaren inozentziaren eta ustelkeriaren arteko gatazka. *Peter Grimes* lan horietako lehena izan zen.

Ingelesez bada metafora bat *at sea* egoteari erreferentzia egiten diona, hau da, irtenbiderik gabeko egoera alderrai batean egoteari. *Peter Grimes* lanean,

errepertorioko beste edozein operatan baino gehiago, berezko eskubidea duen protagonista da itsasoa: kostaldeko herritarrek Peterrekiko dituzten aurreiritzien atzealde emozionala osatzen du, eta gizonen jarrera eta sentimenduak (larritasuna, desira...) islatzen ditu haren indarkeriaren bidez; gainera, pertsonaia guztien klaustrofobia sentsazioa areagotzen du. **Lau itsas interludioek** leku nabarmena eskuratu zuten errepertorio sinfoniko britainiarrean, azkar batean. *Peter Grimes* laneko itsasoari buruzko esku-hartze sinfonikorik distiratsuenak jasotzen dituzte horiek, orkestrako suite gisa.

1934an, *Romeo eta Julieta* istorioan inspiratutako ballet bat eskatu zion San Petersburgoko Kirov antzokiak **Sergei Prokofievi**. Enkargu hura jaso zuenean, Errusiara itzultzea pentsatzen ari zen konpositorea, behin betiko, bi hamarkada erbesteratuta pasatu ondoren. Prokofievek balleta idazteko eskaintza onartu zuen, bere herrialdean artista gisa probatzeko nahiak bultzatuta, Europan praktikatu zuena baino estilo irisgarriago batekin. 1936an Sobietar Batasunera joan zen behin betiko.

Sergei Eisenstein, *Potemkin korazatua* filmaren zuzendaria, azkarra izan zen eta haren film berriaren proiektuan sartu zuen Prokofiev iritsi berria. Alexandro Nevski Novgorodeko printzeari buruzkoa zen filma; hark uko egin zion suediarren eta teutoien inbasioari, XIII. mendean. Eisensteinek ezagutzen zuen Prokofievek ekintza eszenikoarekiko eta irudiarekiko zuen enpatia, ordurako frogatu baitzuen *Kije tenientea* filmerako egin zuen musikarekin. Eta bazekien 1938an Estatu Batuetan zeharreko bira batetik itzuli berria zela; bira hartan zehar Walt Disneyen soinu-ekoizpenerako estudioak bisitatu zituen, Los Angelesen. Prokofievek zinemarekiko benetako interesa zuen (zortzi soinu-banda idatzi zituen guztira); hortaz, konpositorea eta zinemagilea elkarrekin lanean hasi ziren eszena bakoitzaren epikari eta planoen eta kamera-aldaketan erritmoari ezin hobeto egokituko zitzaion musika ekoizteko. **Alexandro Nevski** filmak arrakasta itzela izan zuen, baita izen bereko kantataren estreinaldiak ere, 1939ko maiatzean.

Kantatak oso gertutik jarraitzen ditu filmeko gertakariak eta haren narratiba. Hasieran oldarkorra da musika, mongoliarren zapalketaren krudeltasuna eta errusiarren sufrimendua islatzeko. Ondoren, Alexandro Nevskiren ospakizun-abesti bat agertzen da, Neva ibaiaren erriberan tropa suediarrei irabazi zietenekoa. Errusiarrek haien aurkarien kontra zuten ausardia erakusten du abestiak. Ondoren agertzen dira aurkari horiek: gurutzatu teutoiak; latinezko himnoak abesten dituzte, eta metal garratzez betetako musika batez lagunduta agertzen dira, haien gogortasuna eta bihozgabetasuna adierazteko. Errusiarrek altxatu egin ziren haien aurrean, borrokarako dei patriotiko batekin, eta hala hasi zen *Izotz gaineko gudu*a, Eisensteinen filmeko eta Prokofieven partiturako unerik gogoangarrietako bat. Azkenik, errusiarrek irabazi zuten, baina baja ugari izan zituzten. Hasierako ospakizunaren ondoren, gudu-zelaian haren maitalearen gorpuaren bila dabilen emakume baten intziria entzuten da, erorien suhartasuna goretsiz. Alexandro Nevskik Pskoven egin zuen sarrera arranditsuarekin amaitzen da kantata, eta bertan, abesbatzak bere distira osoan agurtzen du. Kantata honetan hain garrantzitsuak diren ahots-zatiak **Donostiako Orfeoia**k abestuko ditu, obra hau hamaika aldiz interpretatu baitu eta bere aurkezpen-karta egin baitu, eta **Alisa Kolosova** mezzosopranoak, bere belaunaldiko abeslari errusiar laudatuenetako batek, Milango Teatro alla Scala edo Salzburgoko Jaialdia bezalako eszenatoki garrantzitsuetan aritu denak.

**P**ablo González, titular de la Orquesta Sinfónica de RTVE y uno de los directores españoles con mayor proyección internacional, dirige hoy a Euskadiko Orkestra en uno de los programas más comprometidos de esta Temporada que gira en torno al ser humano, sus ideas y vivencias, y cómo el arte se erige en su aliado para la comprensión del mundo. Escucharemos tres obras que tienen como hilo conductor los dramas creados por la pobreza, las guerras y la hostilidad entre seres humanos.

Aunque las grandes obras del pasado siguen mandándonos mensajes muy vigentes, ninguna puede hablarnos de los problemas del presente mejor que la música contemporánea. **At the Aegean Shores** (A orillas del mar Egeo) es un poema sinfónico que **Saskia Venegas** escribió tras pasar el verano de 2016 trabajando como voluntaria en un campo de refugiados en Lesbos. Impactada por la crisis humanitaria que presencié allí, dio forma a esta obra programática que comienza representando una lancha de goma peligrosamente sobrecargada que se abre paso a través de la turbulenta corriente que separa Turquía de Lesbos. Tras la abrupta llegada a las playas de la «tierra de la esperanza», la agitación sonora anterior se transforma en un paisaje etéreo y contemplativo del que surge una melodía inspirada por los modos y colores de la música griega, y acompañada por patrones rítmicos y notas pedales característicos de las oraciones ortodoxas. Venegas nos recuerda que estas oraciones son impuestas a los recién llegados por medio de grandes altavoces colocados fuera de las paredes de las iglesias.

La autora explica que este expresivo pasaje desemboca «en un nuevo tema que no llega a florecer plenamente ya que es paulatinamente engullido por una nueva corriente (iniciada por las cuerdas) que representa el sistema burocrático europeo. Un sistema que despoja a los recién llegados de la autonomía de decidir el rumbo de sus propias vidas. Un sistema que congela sus rutinas diarias reduciéndolas a una interminable espera de aprobación, sumiéndoles en una agonizante inexistencia. Un sistema que succiona el último brillo que conservaban en su mirada. Con el paso del tiempo, estas historias son relegadas a un segundo plano a pesar de que las lanchas siguen atracando a diario y la gente sigue hacinada en ingentes campos inhumanos».

*At the Aegean Shores* es una cruda obra de denuncia, pero deja también espacio a la esperanza y la fe en el ser humano. «Espero que como sociedad seamos capaces de encontrar una manera de incluir y acoger a todos aquellos que escapan del horror y que en el futuro no tengamos que decir: ‘Ojalá hubiésemos...’», afirma Venegas.

**Benjamin Britten** alcanzó la fama internacional con **Peter Grimes** (1945), una de las obras maestras del teatro musical en el siglo XX. Al margen de su gran efectividad dramática y musical, *Peter Grimes* conmocionó la escena lírica por el tratamiento psicológico del personaje protagonista. El de Grimes, un pescador inglés violento y socialmente inadaptado moviéndose en un ultraconservador entorno rural, era un tipo de personaje inédito en la historia de la ópera, y la manera en que fue dibujado por Britten, negándose a presentarlo como un depravado, le otorgó una complejidad humana también sin parangón. *Peter Grimes* fue la primera de una docena de óperas que, desde distintos puntos de vista, abordaban un tema fundamental para Britten: el conflicto entre la inocencia y la corrupción del alma humana.

Hay una metáfora inglesa que alude a estar *at sea*, es decir, perdido en medio de una situación errática y sin escapatoria. En *Peter Grimes*, más que en ninguna otra ópera del repertorio, el mar es un protagonista por derecho propio: interfiere como trasfondo emocional de los prejuicios del pueblo costero hacia Peter, refleja en su violencia el comportamiento de los hombres y sus sentimientos (la angustia, el deseo...), y acentúa la sensación de claustrofobia que sufren todos los personajes. Los **Cuatro**

*interludios marinos*, que rápidamente pasaron a ocupar un lugar destacado en el repertorio sinfónico británico, recogen, en forma de suite orquestal, cuatro de las más esplendorosas intervenciones sinfónicas del mar en *Peter Grimes*.

En 1934, el Teatro Kirov de San Petersburgo le pidió a **Sergei Prokofiev** un ballet inspirado en la historia de *Romeo y Julieta*, un encargo que llegó cuando el compositor estaba considerando su regreso definitivo a Rusia tras dos décadas expatriado. Impulsado por el entusiasmo de probarse como artista en su país, con un estilo más accesible que el que había practicado en Europa, Prokofiev aceptó la oferta de escribir este ballet, y en 1936 se mudaría definitivamente a la Unión Soviética.

Sergei Eisenstein, director de *El acorazado Potemkin*, fue astuto al embarcar al recién llegado Prokofiev en el proyecto de su nueva película en torno a la figura de Alejandro Nevsky, Príncipe de Novgorod, que rechazó la invasión de suecos y teutones en el siglo XIII. Eisenstein conocía la empatía de Prokofiev con la acción escénica y con la imagen, que había demostrado ya en su música para la película *El teniente Kijé*, y sabía también que en 1938 acababa de llegar de una gira por Estados Unidos durante la cual había visitado los estudios de producción sonora de Walt Disney en Los Ángeles. Prokofiev tenía un interés genuino por el medio (escribiría en total ocho bandas sonoras), así que compositor y cineasta se pusieron a trabajar codo con codo para producir una música que se adaptase como un guante a la épica de cada escena y a la rítmica de planos y cambios de cámara. El éxito de **Alexander Nevsky**, la película, fue inmenso, como lo fue también el estreno de la cantata homónima en mayo de 1939.

La cantata sigue muy de cerca los eventos y la narrativa del filme, comenzando con la agresividad de una música que refleja la crueldad de la opresión mongola y el sufrimiento del pueblo ruso. Llegamos luego a una canción celebratoria de Alexander Nevsky tras su victoria sobre las tropas suecas en las riberas del río Neva, en la que se demuestra la determinación de los rusos contra sus enemigos. Dichos enemigos aparecen a continuación: se trata de los cruzados teutones, que entonan himnos en latín y van acompañados de una música repleta de cáusticos metales para expresar su dureza e inclemencia. Ante ellos se levanta el pueblo ruso con una llamada patriótica al combate, que da paso a *La batalla sobre el hielo*, uno de los momentos más inolvidables de la película de Eisenstein y también de la partitura de Prokofiev. Finalmente, los rusos se alzan con la victoria, pero a costa de un gran número de bajas, y tras la celebración inicial escuchamos el lamento de una mujer que busca el cadáver de su amante en el campo de batalla, alabando la bravura de los caídos. La cantata concluye con la triunfal entrada de Alejandro Nevsky en Pskov, saludado por el coro en todo su esplendor. Las partes vocales, tan importantes en esta cantata, estarán entonadas por el **Orfeón Donostiarra**, que ha interpretado esta obra innumerables veces y ha hecho de ella su carta de presentación, y la mezzosoprano **Alisa Kolosova**, una de las cantantes rusas más elogiadas de su generación, que ha actuado en escenarios tan importantes como el Teatro alla Scala de Milán o el Festival de Salzburgo.

MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

# MOZART BRUCKNER

Apirila **29** Abril

| 19:30

SARRERAK ENTRADAS



**10€ < 38€**

euskadikoorkestra.eus  
baluarte.com  
Leihatila - Taquilla








# EUSKADIKO ORKESTRA

ZUZENDARI TITULARRA

ROBERT TREVIÑO

DIRECTOR TITULAR



MAHLER · BRAHMS · SHOSTAKOVICH · RAVEL · FALLA · COPLAND  
LAUZURIKA · RACHMANINOFF · STRAUSS · VENEGAS · PROKOFIEV  
MOZART · BRUCKNER · LALO · DVORAK · DUTILLEUX

Bilboko Koral Elkarteak · Justina Gringyte · Stanislav Kochanovsky · Sergey Khachatryan · Juanjo Mena  
Clara Mouriz · Alfonso Gómez · Juraj Valcuha · Riccardo Frizza · Federico Colli · Pablo González  
Donostiako Orfeoia · Alisa Kolosova · Marie Jacquot · Markus Schirmer · Lina González-Granados  
Alban Gerhardt · Elena Sancho Pereg



**SARRERAK / ENTRADAS**

A partir de **10€** -tik gora

**Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak**  
Tarifas especiales: consultar descuentos

**PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte**  
19:30

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32